

Ramon López de Mántarasek hitzaldia eskaini du Arrasateko diploma banaketa ekitaldian

2012/05/09

Mondragon Unibertsitateko ikasle ohia eta egun CSICen adimen artifizialean irakaslea da Ramon Lopez de Mantaras adimen artifizialean mundu mailako aditua da, aitzindaria izan da Espainian adimen eta Europa osoko aditurik garrantzitsuenetako bat da. Bere lanen artean azpimarratzekoa da sormen konputazionalari buruz egin zuen ikerketa, bereziki musikaren alorrean, eta, bere ikerketa-taldearekin, aitzindaria izan zen espresibitate txikiko musika-interpretazioei musika-espresibitatea emateko gai diren programak sortzen. Kasuetan eta logika lausoan oinarrituriko arrazoibidean ere lan egin du, roboten nabigazioaren alorrean.

Ramon Lopez de Mántarasek (Sant Vicenç de Castellet, Bartzelona, 1952) Elektronikako Ingeniaritza Teknikoa ikasi zuen Mondragon Unibertsitatean eta Fisika aplikatuko lizentziatura-ikasketak egin zituen Frantzian. Gainera, robotikan doktoratu zen Paul Savatier Unibertsitatean (Toulousen). Gerora, Informatikako master-ikasketak egin zituen, zehazki, adimen artifizialaren alorrean, Berkeleyyn, Kaliforniako Unibertsitatean (AEBetan), eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan (Bartzelonan) informatikan doktoratu zen.

Lan-alorrean, irakaslea izan zen Paris-6 Unibertsitatean eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Informatika Fakultatean.

Egun, CSICeko (Zientzia Ikerketen Goi Zentroko) Adimen Artifizialaren Ikerketa Institutuko zuzendaria da. Europan zientzialari aitzindaria da adimen artifizialaren eta robotikaren alorreko ikerketan. Hainbat alorretan ekarpenak egin ditu: robotetan ukimenaren bidezko ezagutzaren, medikuntzarako sistema aditu aplikatuen eta, batez ere, 'sormen artifizialaren' alorretan. Musika adierazkorra interpretatzeko gai den programa bat garatu du, esaterako.

Besteak beste, Zientzia Ikerketari buruzko Bartzelonako Hiria Saria (1982), Adimen Artifizialari buruzko "DIGITAL" Europako Saria (1987), Col·legi d'Enginyers Industrials de Catalunya-ren Guillem Catà Saria (1994) eta International Computer Music Association-en Swets & Zeitlinger Saria irabazi ditu.

Adimen emozionalaren mugak ezezagunak dira. Badirudi orain ordenagailuak sortzaileak izateko eta artelanak egiteko gai direla. Kalitatea gutxienekoa da, garrantzitsuena sortzeko gaitasuna da. Nola nahi ere, Mántarasek, zuzentzen duen institututik, XXI. Mendeko zientzia honek egingo digun ekarpena aprobetxatzen jakingo du.



Diploma Banaketa